

2008ko abenduaren 31an UDALBATZAK EGINDAKO BILKURA EZ-OHIZKOAREN AKTA.

11.Zk.

Aiako Udaletxeko batzar aretoan eta egun honetako goizeko 9:30tan, Udalbatzarra bildu da, idazkari-kontuhartzailea bertan egonik.

Alkate Lehendakari jaunak zuzendu du bilera eta bertara ondoko Udalkideak agertu dira:

LEHENDAKARIA: IGOR ITURAIN IBARGUREN jauna

ZINEGOTZIAK :

- 1.- MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNAL anderea
- 2.- MAITANE ARRILLAGA ALDALUR anderea
- 3.- ANDER ARRILLAGA ALBENIZ jauna
- 4.- MARI KARMEN EGURZA AGIRRE anderea
- 5.- ANTXON GOMEZ LORENTE jauna

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA: ITZIAR AZURTZA-SORRONDEGI anderea

Lehendakari jaunak hala adierazita ekitaldiari hasiera eman eta ondoren azaldutakoa gertatu eta erabaki da:

1.-2008 urteko aurrekontuaren bigarren kreditu aldaketari hasierako onarpena eman

Alkateak adierazi du indarrean dagoen aurrekontuan hurrengo taulan jasotako aldaketak burutzea komeni dela.

Kapitulua Capitulo	Funtzioa/ Funcion	Partida	Hasierako kreditoa Credito Inicial	Aldaketa Modificacion	Bukaerako kreditoa Credito Final
6		Baserri bideak konpontzea: 2007	19.112,38	1.960,18	21.072,56
		Baserri bideak konpontzea: 2008	32.793,70	234.119,92	266.913,62
		Guztira aldaketak	51.906,08	236.080,10	287.986,18

Aldaketa hauek guztira 236.080,10.-euroko kopurua osatzen dute.

Aldaketa hau gauzatu ahal izateko bada nahiko kreditu erabilgarri, izan ere, 2008ko aurrekontuetako zenbait partidetan aurrikusitakoa baina kopuru txikiagoak erabili baitira edo aurrikusitakoa baina diru-sarrera handiagoak izan baitira beste alde batetik, ondoren atxikitutako taulan egiazta daitekeenez.

Kapitulua Capítulo	Funtzioa/ Funcion	Partida			
		BAJAK KREDITUETAN	Hasierako kreditua	Kreditu erabiliak	Kreditu erabilgarria
		SARRERA HANDIAGOAK	Aurrikusia	kobratua	
1	114	Hiri lurren baio zerga	35000	46994,69	-11.994,69
1	130	Enpresa iharduerak	41410,5	45749,81	-4.339,31
		<i>Guztira 1. Kap.</i>			-16.334,00
3	310,05	ospitaletxeko sarrerak	24672	34881,55	-10.209,55
3	310.150	goiz-argi, etxez-etxe	26728	38145,41	-11.417,41
3	312.010	Hirigintza baimenak	7000	19720,00	-12.720,00
	396.020	Bestelako konpentsazioak		1 11403,00	-11.402,00
		<i>Guztira 3. Kap.</i>			-45.748,96
4	420.991	Transferentziak: Ongizatekoak	51000	78369,60	-27.369,60
		<i>Guztira 4. Kap.</i>			-27.369,60
7		Diputazioak: Landabus proiektu pilotoa		0 146627,54	-146.627,54
		<i>Guztira 7. Kap.</i>			-146.627,54
		<i>Guztira sarrera handiagoak</i>			-236.080,10

Izapidetzari dagokionez, bai hasierako onarpen akordioa bai espedientea jendaurrean egongo dira 15 eguneguz Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarritz geroztik, Udal Idazkaritza-bulegoetan, jarraian adierazitako baldintzetan.
Alegia:

- a) Erreklamazioa aurkezteko legitimazioa izango dutela 21/2003 Foru Arauak 17. artikuluan aipatutakoek .
- b) Erreklamazioak aurkezteko lekua Udaletxeko Erregistroa eta 30/92 legeko 38 artikulua jasotako tokiak izango direla
- d) Erreklamazioak Udal Batzarrari zuzendu behar zaizkiola.

Informazio publiko aldia igaro ondoren, erreklamazio ezean, hasierako onarpen akordioa behin-betikotzat jo eta ondorioz, kreditu-aldaketok behin betiko onartuak izan direla ulertuko da, beste erabaki espresurik hartu beharrik gabe. Eta kreditu-aldaketen laburpena kapituluka Aldizkari Ofizialean argitaratuko da azkenik. Guzti hau Udal Aurrekontuen 21/2003 Foru Arauak – abenduaren 19koak- xedatutakoari jarraituz.

BOZKETA:

-Alde : 4 bozka (Igor Iturain-Ibarguren jauna, Maria Jesus Arruabarrena Esnal anderea, Ander Arrillaga Albeniz jauna, Mari Karmen Egurza Agirre anderea)

- Aurka: 0 bozka

- Abstentzia: 2 bozka (Antxon Gomez Lorente jauna, Bittor Sanchez Mendizabal jauna)

AKORDIOA: Batzarkideek, gehiengoz, onartu dute 2008 urteko Aurrekontuetako bigarren kreditu-aldaketa honi hasierako onarpena ematea, aipatutako atalak direla eta.

2.- Alkate ebazpenen berri eman

Alkateak ondoren zerrendatutako 041/2009 eta 066/2009 erreferentziadun Alkate-ebazpenen berri eman du.

Motzean, gai hauei buruzkoak izan dira:

- azaroaren 13ko 041/2009 alkate ebazpena, altxortegi operazioa kutxarekin itunduz hilabete baterako
- azaroaren 13ko 042/2009 alkate ebazpena, altzola auzoko jaietarako dirulaguntza luzatzeko agindua emanaz (1.200.-euro)
- azaroaren 13ko 043/2009 alkate ebazpena, urdaneta auzoko jaietarako dirulaguntza luzatzeko agindua emanaz (3.100.-euro)
- azaroaren 14ko 44/2008 alkate ebazpena , kirol elkarteari dirulaguntza emanaz (2. zatia) (1.000.-euro)
- azaroaren 14ko 45/2008 alkate ebazpena likidazioa zuzenduz, ercilla sendiarekin zeuden zor eta eskubideak konpentsazioaren ondorioz
- azaroaren 27ko 46/2008 alkate ebazpena zinegotzien ordainketak gauzatzuz (2008ko maiatza-azaroa bitartekoak)
- azaroaren 27ko 47/ 2008 alkate ebazpena udal taldeei dirulaguntzak luzatzeko agindua emanaz
- azaroaren 28ko 048/2008 alkate ebazpena euskotren baltzuari likidazioa baliogabetuz
- azaroaren 28ko 049/ 2008 alkate ebazpena herriguneko jaietarako dirulaguntza luzatzeko agindua emanaz.
- abenduaren 1eko 050/2008 alkate ebazpena padroiko datuak ukatuz
- abenduaren 1eko 51/2008 alkate ebazpena zinegotzien ordainketa osagarriak gauzatzuz (2008ko urtarrila, otsaila, martxo eta apirileko ordainketen osagarriak)
- abenduaren 1eko 52/2008 alkate ebazpena, ibilgailuen ordainketak direla eta.
- abenduaren 18ko 053/2008 alkate ebazpena, konpentsazio proiektua aurkezteko agindua emanaz, santio kooperatibari.
- abenduaren 18ko 54/2008 alkate ebazpena, argazki lehiaketako sariak ordainduz
- abenduaren 31ko 55 /2008 alkate ebazpena altxortegi operazioa itunduz kutxarekin
- abenduaren 29ko 56/2008 alkate ebazpena likidazioa zuzenduz, armendigain sl-ri 212/2008 erabaki bidez emandak irekiera lizentzia dela eta
- abenduaren 29ko 57/ 2008 alkate ebazpena hamaikagarren faktura zerrenda ordainduz (42.478,97.-euro)
- abenduaren 29ko 58/2008 alkate ebazpena "arreta pagoeta sl"-ri ordainduz (3. zatia) (44.619.-euro)

- abenduaren 29ko 59/2008 alkate ebazpena "urola kostako udal elkarteari" ordainduz gastu finkeen konzeptuan (46.920,28.-euro)
- abenduaren 29ko 60/2008 alkate ebazpena " play and say" -ri ordainduz ingeles ekintzak abenduan direla eta (1.150.-euro)
- abenduaren 29ko 61/2008 alkate ebazpena "ihobe"-ri urteko kuota ordainduz udalsarea 21 "-eko kide izateagatik (300.-euro)
- abenduaren 29ko 62/2008 alkate ebazpena " hitza" -ri ordainduz " euskararen eguna " dela eta (895,75.-euro)
- abenduaren 30ko 63/2008 alkate ebazpena " bixente otegi" -ri ordainduz herri-bideen konponketa dela eta
- abenduaren 30ko 64/2008 alkate ebazpena zinegotzien ordainketak gauzatuz (2008ko abendukoak)
- abenduaren 30eko 65/ 2008 alkate ebazpena udal talde mixtoari dagokion dirulaguntzak luzatzeko agindua emanaz
- abenduaren 30eko 66/2008 alkate ebazpena " agote-handi " herri bidearen konponketagatik likidazioak gauzatuz

3.- Galdera-eskariak

Ez daude.

Bileran esan eta onartutakoak jasota gera daitezen, idazkariak idatzi eta bertaraturakoek onartu eta izenpetu dute, Aian 2009ko apirilaren 16an.

IGOR ITURAIN IBARGURENek

MARIA JESUS ARRUABARRENA ESNALek

MAITANE ARRILLAGA ALDALUREk

ANDER ARRILLAGA ALBENIZEk

MARI KARMEN EGURZA AGIRREK

ANTXON GOMEZ LORENTEK

Idazkari-kontuhartzailleak.